



**Doktoretza-ikasketa ofizialetako programak  
EGIAZTATZEKO ETA ALDATZEKO  
EBALUAZIO-PROTOKOLOA**

Urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuaren arabera, Doktoretza-ikasketa ofizialak arautzen dituen,  
eta irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren arabera, unibertsitate-ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen

2022ko otsailaren 3ko REACUren bileran onartutakoa

## **SARRERA**

Unibertsitateko irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen 822/2021 Errege Dekretuak unibertsitateko irakaskuntza ofizialen egiaztapen-, aldaketa-, segimendu- eta egiaztatze-prozesuak arautzeko esparru orokorra ezartzen du.

99/2011 Errege Dekretua, doktoretza-ikasketa ofizialak arautzen dituena, erreferentzia-esparrua da doktoretza-ikasketa horiek antolatzeko. Araudi horrek doktoreen prestakuntzari buruzko Europako eta nazioarteko foroetan aipatutako gomendioak jasotzen ditu. Gomendio horiek guztiak honako hauei buruzkoak dira: doktoretzaren egitura eta antolaketa, doktoregaiek eskuratu beharreko gaitasunak, ikerketa-karreraren hasierako etapan sartzeko eta garatzeko baldintzak, ikerketa-prestakuntza gainbegiratzearen eta babestearen funtsezko zeregina, prestakuntza hori ikerketa-ingurunean sartzea, komunikazioa eta sormena, nazioartekotzea eta mugikortasuna sustatzeko.

Egiaztapenerako ebaluazioak kontuan hartuko ditu, batez ere, programan parte hartzen duten ikertzaile-taldean kaudimena bermatzen duten alderdiak eta doktoregaien prestakuntzaren garapen egokia. Horregatik, honako hauek baloratuko dira: programan parte hartzen duten langileen ikerketa-kualifikazioa, parte hartzen duten proiektu lehiakorak, beren ekarpen zientifiko garrantzitsuenak, doktoretza-tesiak zuzentzen duten esperientzia, tesien kalitatea, doktoregaien dagoen finantzaketa eta programaren nazioartekotze-maila. Ebaluazio horrek balio behar du doktoretza-programak behar adina giza baliabide eta baliabide material dituela bermatzeko, aurreikusitako denboran arrazoizko doktoretza-tesi kopurua gauzatu dadin, dagokion testuinguru zientifikoari egokitutako eragin eta kalitatearekin, eta ikasketak egin dituzten pertsonen enplegarritasuna haien prestakuntzaren arabera izan dadin.

822/2021 Errege Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, honako protokolo hau egin da Unibertsitateko Kalitate Agentzien Espainiako Sarearen (REACU) baitan. Sare horren helburua da doktoretza-programa orok eskaini behar dituen hasierako gutxieneko baldintzak a priori bermatzen dituzten gai garrantzitsuenak aztertzea eta baloratzea.

Ebaluazio-protokolo honen egitura bat dator unibertsitateek egiaztatze-prozesua bideratzen duten eta 99/2011 Errege Dekretuaren I. eranskinean aurkitu daitekeen doktoretza-programa bakoitzari buruzko informazioa bidaltzeko duten moduarekin. Horrela, gai orokor batzuk sartzeaz gain, ebaluazio protokoloa zortzi irizpidetan oinarritzen da, eta horietako bakoitzerako balorazio prozesua gidatuko duten zenbait jarraibide ere sartu dira. Horrek ez du esan nahi agentzia bakoitzak bere laguntza-gidak egin ezin ditzakeenik. Gida horietan zehaztasun handiagoz deskribatuko dira nola gauzatu den ebaluazio-prozesuetan dokumentu honetan deskribatzen diren irizpideen eta jarraibideen aplikazioa.

Egiaztapenerako ebaluazio-prozesuei ahalik eta koherentzia eta sendotasun handiena emateko, agentziek protokolo hori aztertzeke eta etengabe berrikusteko konpromisoa hartzen dute, unibertsitateek une oro izan dezaten beren titulu-proposamenak egiteko behar duten informazioa.

## **UNIBERTSITATEKO TITULU OFIZIALEN IKASKETA-PLANAK DISEINATZEKO PRINTZIBIO GIDARIAK**

822/2021 Errege Dekretuaren 4. artikulua araberak, unibertsitate-titulu ofizialen ikasketa-planen oinarri izan behar duten printzipio orokorrak, doktoretza-programak barne, honako hauek dira:

- unibertsitate-irakaskuntzak berekin dakarren prestakuntza-proiektuaren zorrotasun akademikoa;
- irakaskuntza inskribatzen den zikloetako izaera orokorarekin edo espezializatuarekin bat etortzea;

- ikasketa-planaren prestakuntza-helburuen, lortu nahi diren funtsezko gaitasunen eta alde zuzenak ezarritako ikaslearen ikaskuntza ebaluatzeko sistemen arteko koherentzia;
- gizarteak ulertzeko modukoak izatea.

Era berean, doktoretza-programek printzipio eta balio demokratikoak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) izan beharko dituzte erreferente.

### ESG-EKIKO LERROKADURA

Ikasketa-planaren memorian erabilitako konfigurazioak eta terminologiak bat etorri beharko du Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan kalitatea ziurtatzeko irizpide eta jarraibideekin (Standards and Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area, ESG). Irizpide eta jarraibide horiek erreferentzia izango dira unibertsitateetako Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemetan (KBBS) eta Espainiako unibertsitate-sistemaren kalitatea ziurtatzeko agentziek egindako kanpo-ebaluazioko prozeduretan (Kalitatea Bermatzeko Agentzien Europako Erregistroan inskribatuak, The European Quality Assurance Register for Higher Education, EQAR).

Modu horretan, gizarteak unibertsitate-tituluen zehaztasunean eta sendotasunean duen konfiantza indartu egiten da, etengabeko hobekuntza errazten da, ikasketak amaituta dituzten pertsonen enplegarritasunerako eta laneratzeko duina eta kalitatezkoa indartzen da, eta, horrez gain, Espainiako unibertsitate-tituluen nazioarteko onarpenera eta nazioarteko titulu bateratuen garapenera errazten dira.

DOKTORETZA-PROGRAMA ARDAZTEN DUTEN DIMENTSIOAK	ESG IRIZPIDEAK
[1] Doktoretza-programaren deskripzioa	1.2. Programen diseinua eta onespina
[2] Gaitasunak	
[3] Ikasleen sarrera eta onarpenera	1.4. Ikasleen onarpenera, bilakaera, aintzatespena eta ziurtapena.
[4] Heziketa-jarduerak	1.3. Ikasleak oinarri dituen irakaskuntza, ikaskuntza eta ebaluazioa.
[5] Programaren antolaketa	
[6] Giza baliabideak	1.5. Irakasleak
[7] Baliabide materialak eta doktoregaiantzako laguntza	1.6. Ikaskuntzarako eta ikasleei laguntzeko baliabideak
[8] Programaren berrikuspenera, hobekuntza eta emaitzak	1.1. Kalitatea ziurtatzeko politika
	1.9. Programen etengabeko jarraipena eta aldizkako ebaluazioa
	1.7. Informazioaren kudeaketa
	1.8. Informazio publikoa
	1.10 Kalitatearen kanpo-ziurtapen ziklikoa

## **EBALUATZEKO DIMENTSIOAK, IRIZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK**

### **[1] Doktoretza-programaren deskripzioa**

Doktoretza-programak bere mailarekin eta ondorio akademikoekin koherentea den deskripzioa ere izan behar du, haren ezaugarriei buruzko nahasterik eragin ez dezan.

- Izenak bat etorri behar du proposatutako ikerketa-ildoekin, eta ez du nahasterik eragin behar.
- Testuinguruak, tradizioak, tituluen eskaintza globalak eta proposatzen duen unibertsitatearen edo unibertsitateen potentzialtasunak justifikatu behar dute.
- Koherentea izan behar du, eta unibertsitateko edo beste erakunde eta instituzio batzuetako I+G+b estrategian integratuta egon behar du.
- Dagokion nazioartekotze-maila erakutsi behar du, gaiaren eta testuinguruaren arabera.

### **[2] Gaitasunak**

Doktoregaiak lortu beharreko gaitasunak bat etorri behar dute doktore-titulua emateko eska daitezkeenekin eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan ezarritako kualifikazioekin.

- Proposatutako gaitasunak argi eta zehatz idatzita egon behar dira, eta Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan duten mailarekin lerrokatuta.
- Proposatutako gaitasunak ebaluatu egin behar dira, eta doktoregai guztiek eskuratzea bermatu behar da.

### **[3] Ikasleen sarrera eta onarpena**

Doktoretza-programak sarbide- eta onarpen-sistema bat izan behar du, ikasleari onarpen-irizpideei buruzko informazioa emateko, argi eta garbi.

- Onarpen-irizpideek publikoak izan behar dute, argi eta garbi deskribatuta egon behar dute, ez dute nahasterik eragin behar eta koherenteak izan behar dute doktoretza-programaren esparru zientifikoarekin.
- Berariazko heziketa-osagarriak eskatzen badira, osagarri horiek sarrera-profilera egokituta egon behar dute, eta koherenteak izan behar dute doktoretza-programaren esparru zientifikoarekin.
- Doktoretza-programari buruzko informazioak doktoregaien eskura egon behar du matrikulatu aurretik.

### **[4] Heziketa-jarduerak**

Doktoretza-programan sartutako heziketa-jarduerak modu koordinatuan diseinatutako heziketa-proposamen koherentea izan behar dute, eta kontuan hartu behar dute doktoregaiak denbora-tarte jakin batean duten dedikazioa.

- Heziketa-jardueren plangintzak eta antolaketak, bereziki diziplina- eta metodologia-ezagutzei buruzkoak (mintegiak, ikastaroak, tailerrak, etab.), zeharkako gaitasunei buruzkoak, heziketa-esperientziei buruzkoak (doktoregaien jardunaldiak, nazioko edo nazioarteko kongresuak, etab.), besteak beste, koherenteak izan behar dute doktoregaiak eskuratu beharreko gaitasunekin.
- Doktoretza-programak kontuan hartu behar du doktoregaien mugikortasunaren antolaketa egokia, eskuratu beharreko gaitasunekin bat datorrena.

- Doktoretza-programak plangintza bat jaso behar du, bai lanaldi osoko ikasleentzat, bai lanaldi partzialeko ikasleentzat, aurreikusitako gaitasunak eskuratu edo bereganatzen direla ziurtatzeko.

### **[5] Programaren antolaketa**

Doktoregaien doktoretzaren jarraipena egiteko eta doktoretza-tesia gainbegiratzeko prozedurek ziurtatu behar dute ikasleek doktoretza-programan zehaztutako gaitasunak eskuratzen dituela.

- Doktoretza-programak ondoren zehazten diren prozedurak barnebildu behar ditu eta publiko egin behar ditu. Prozedura horiek egokiak izan behar dute eta alderdi hauk izan behar dituzte kontuan:
  - Batzorde akademikoak doktoretza-tesiaren tutorea eta zuzendaria esleitzeko erabilitako prozedura.
  - Doktoregai bakoitzaren jardueren dokumentua kontrolatzeko prozedura eta haren datuen ziurtapena.
  - Ikerketa-plana eta doktoregai bakoitzaren jardueren dokumentua urtero baloratzeko prozedura.
  - Doktoretza-tesien zuzendaritza eta gainbegiratze anizkoitza sustatzeko jarduerak definitzeko eta baloratzeko prozedura.

### **[6] Giza baliabideak**

Doktoretza-programa ikertzaileek bermatu beharko dute, haiek izan behar baitute, a priori, doktoregaien prestakuntzari dagokionez, programaren bideragarritasuna bermatuko dutenak. Langile akademikoek aski izan behar dute eta doktoretza-programa aurrera eramateko kualifikazioa eta esperientzia nahikoa izan behar dituzte.

- Ikerketa-talde bakoitzak ikerketa-proiektu lehiakorra izan behar du, beti ere programaren ikerketa-ildoekin harremana duena.
- Programan parte hartzen duten ikertzaileen ekarpen zientifiko garrantzitsuenen kalitateak bermatu behar du programa.
- Ikertzaileek doktoretza-tesien zuzendaritzan duten esperientzia egiaztatuak eta horien kalitateak bermatu behar dute programa.
- Unibertsitatean, tutoretza-lana eta tesien zuzenketa-lanak aintzatesteko mekanismo argiak egon behar dira.

### **[7] Baliabide materialak eta doktoregaiantzako laguntza**

Doktoretza-programan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak garatzeko eta ikaslearen prestakuntza integralerako beharrezkoak diren baliabide materialek eta zerbitzuek aurreikusitako gaitasunak bereganatzen direla ziurtatu behar dute.

- Eskura dauden baliabide materialek eta bestelako baliabideek doktoregai bakoitzak egin beharreko ikerketaren garapena bermatu behar dute.
- Doktoregaiei kongresuetara joatea eta atzerrian egonaldiak egitea erraztuko dieten zerbitzuak eta baliabideak bermatu behar dira, bai eta doktoretza-programaren esparruan estatuko eta nazioarteko mintegiak, jardunaldiak eta bestelako heziketa-ekintzak antolatzeko aukera emango duen finantzaketa ere.

- Doktoretza-programak lanbide-orientaziorako zerbitzuak izan behar ditu, programako graduatuak behar bezala laneratzen laguntzeko.

### [8] Doktoretza-programaren berrikuspena, hobekuntza eta emaitzak

Doktoretza-programak SIGC bat izan behar du, programaren garapena eta emaitzak aztertu ahal izateko, eta haren berrikuspena eta etengabeko hobekuntza ziurtatzeko.

- Batzorde akademiko bat izan behar du, eta haren ardura izango da programaren garapena ikuskatzea, emaitzak aztertzea eta hura hobetzeko jarduera egokiak zehazteko prozedurak eta mekanismoak artikulatzea. Doktoregaien eta ikasketak amaituta dituztenen iritzia kontuan hartu beharreko faktore nagusietako bat izan behar da hobetzeko ekintzak zehaztu eta ezartzerakoan.
- Mugikortasun-programaren emaitzak aztertzeko prozedura bat izan behar du.
- Aldian-aldian, programari, haren garapenari eta emaitzei buruzko informazioa argitaratu behar du.
- Ikasketak amaitutako pertsonen jarraipena egiteko prozedura bat izan behar du.
- Unibertsitate batek baino gehiagok parte hartzen duten programen kasuan, parte hartzen duten unibertsitateen arteko koordinazioa bermatuko duten mekanismoak eta prozedurak izan behar dituzte.

### DOKTORETZA-PROGRAMEN ALDAKETAK

Unibertsitateetan ematen diren irakaskuntza ofizialetako ikasketa-planak aldatzeko prozedura orokorraren helburua etengabe hobetzea da. Aldaketak funtsezkoak edo ez-funtsezkoak izan daitezke, Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatutako tituluaren izaera, helburuak eta funtsezko ezaugarriak aldatzen diren edo ez kontuan hartuta.

- **Funtsezko aldaketak** Unibertsitate Kontseiluari eskatuko zaizkio, eta dagokion kalitatea ziurtatzeko agentziaren ebaluazio-txostena beharko da, egiaztapenaren antzeko prozedura baten bidez. 640/2021 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera akreditazio instituzionala duten doktoretza-eskoletan emandako doktoretza-programen kasuan, edo akreditazio instituzional hori aurkezten duten beste zentro batzuetan emandakoen kasuan, proposamenarekin batera txosten arrazoitu bat aurkeztuko da zentroko edo unibertsitateko KBBSren funtsezko aldaketaren egokitzapen akademikoari eta araudiari buruz.
- **Funtsezkoak ez diren aldaketei** dagokienez, akreditazio instituzionala duten ikastetxeetan irakasten diren ikasketa-planen kasuan, KBBSren txostena beharko da eta aldatutako ikasketa-planaren memoria jakinarazi beharko zaio agentzia eskudunari eta dagokion edo dagozkien Autonomia Erkidegoari/ei. Erakundeek akreditatu gabeko zentroetan ematen badira, berriz, unibertsitateko gobernu-organismoek onartu beharko dute, eta, horretarako, aurretik KBBSek txostena egin beharko du. Agentzia eskudunari bidali beharko zaio eta honek onartu egin beharko du.

822/2021 Errege Dekretuaren 30-33 artikuluek ikasketa-planak aldatzeko prozedura orokorrak arautzen dituzte, deskribatutako kasuistikaren arabera. Zehazki, errege dekretu horren 30.4 artikulua hau dio: “Kalitate-agentziek batera ezarriko dituzte titulu baten ikasketa-planeko memoriaren zer aldaketa mota jo daitezkeen ez funtsezkotzat zehazteko irizpide orokorrak”. Baldintza hori aipatutako gainerako artikuluetan ere sartzen da (zehazki, 31.3 artikuluan, 32.6 artikuluan eta 33.6 artikuluan). Halaber, 32.2 artikulua titularen izaerari, helburuei eta ezaugarriei eragiten dieten alderdi batzuk ezartzen ditu, eta horiek funtsezko aldaketa moduan ebaluatuko dira.

## FUNTSEZKO ALDAKETAK

Doktoretza-programen funtsezko aldaketak kalitatea bermatzeko agentzia eskudunak ebaluatuko ditu, doktoretza-programen egiaztapenekin egiten den antzera, eta protokolo honetan aurrez jasotakoa aplikatuko da.

Instituzionalki akreditatu gabeko unibertsitate-zentroetan burututako ikasketa-planetan funtsezkoak ez diren aldaketei dagokienez, agentzia eskudunak balioetsiko ditu, onar ditzan.

Jarraian, funtsezko aldaketen katalogoa jasotzen da, hau da, ebaluazio-dimentsio bakoitzerako funtsezko aldaketatzat hartuko diren alderdiak, tituluaren izaerari, helburuei eta ezaugarriei eragiten dietelako.

Hala ere, unibertsitatearen proposamenaren arabera aurkeztutako aldaketek, dagokion agentziaren iritziz, titulu berri bat diseinatzea badakarte, agentziak txostena egingo du eskatutako aldaketak ukatuz eta titulu berri bat egiaztatzeko eskatuz.

### [1] Doktoretza-programaren deskripzioa

Dimentsio honi dagokionez, honako hauek dira **funtsezko aldaketatzat** hartuko direnak :

- Programaren izenaren aldaketa partziala.
- Eskainitako plaza kopurua aldatzea.
- Programa eskaintzen duen zentroa/egoitza aldatzea.

Proposatutako gainerako aldaketak **funtsezkoak ez diren aldaketatzat** hartuko dira, betiere doktoretza-programaren izaera, helburuak eta ezaugarriak ukitzen ez badituzte.

### [2] Gaitasunak

Programaren izaerari, helburuei eta ezaugarriei eragiten dien aldaketa oro **funtsezko aldaketatzat** hartuko da, batez ere 99/2011 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako gaitasunez gain, egiaztatutako memorian sartu diren gaitasun gehigarrien aldaketak badira.

### [3] Ikasleen sarrera eta onarpena

Dimentsio honi dagokionez, honako hauek dira **funtsezko aldaketatzat** hartuko direnak:

- Heziketa-osagarrietan egindako aldaketak.
- Ikasleak onartzeko eta hautatzeko irizpideak aldatzea.

Proposatutako gainerako aldaketak **funtsezkoak ez diren aldaketatzat** hartuko dira, betiere doktoretza-programaren izaera, helburuak eta ezaugarriak ukitzen ez badituzte.

### [4] Heziketa-jarduerak

Dimentsio honi dagokionez, honako hauek dira **funtsezko aldaketatzat** hartuko direnak:

- Aldaketa esanguratsuak heziketa-jardueren egituran eta diseinu orokorrean.

Proposatutako gainerako aldaketak **funtsezkoak ez diren aldaketatzat** hartuko dira, betiere doktoretza-programaren izaera, helburuak eta ezaugarriak ukitzen ez badituzte.

### [5] Programaren antolaketa

Dimentsio honi dagokionez, honako hauek dira **funsezko aldaketatzat** hartuko direnak:

- Aldaketa esanguratsuak doktoregaiaren gainbegiratzearen eta jarraipenaren erregulazioan.
- Aldaketa esanguratsuak doktoretza-tesiaren epeen erregulazioan, idazketan, defentsan eta ebaluazioan.

Proposatutako gainerako aldaketak **funsezkoak ez diren aldaketatzat** hartuko dira, betiere doktoretza-programaren izaera, helburuak eta ezaugarriak ukitzen ez badituzte.

### [6] Giza baliabideak

Dimentsio honi dagokionez, honako hauek dira funsezko aldaketatzat hartuko direnak:

- Aldaketa esanguratsuak programa osatzen duten ikertzaileen talde egonkorrean.
- Programaren ikerketa-ildoetan aldaketak egitea.

Proposatutako gainerako aldaketak **funsezkoak ez diren aldaketatzat** hartuko dira, betiere doktoretza-programaren izaera, helburuak eta ezaugarriak ukitzen ez badituzte.

### [7] Baliabide materialak eta doktoregaietzako laguntza

Dimentsio honi dagokionez, honako hauek dira **funsezko aldaketatzat** hartuko direnak:

- Doktoretza-programaren garapenari eragin diezaioketen azpiegiturak edo/eta laguntza-baliabideak aldatzea.

Proposatutako gainerako aldaketak **funsezkoak ez diren aldaketatzat** hartuko dira, betiere doktoretza-programaren izaera, helburuak eta ezaugarriak ukitzen ez badituzte.

### [8] Doktoretza-programaren berrikuspena, hobekuntza eta emaitzak

Dimentsio honi dagokionez, honako hauek dira **funsezko aldaketatzat** hartuko direnak:

- KBBSren ereduari edo egiturari eragiten dioten aldaketak.

Proposatutako gainerako aldaketak **funsezkoak ez diren aldaketatzat** hartuko dira, betiere doktoretza-programaren izaera, helburuak eta ezaugarriak ukitzen ez badituzte.